

SASOETA, LANDABERRI ETA BATXILERGO IKASTETXEETATIK 165 LAN AURKEZTU DIRA

Bertsopaper lehiaketaren sari banaketa alaia kultur etxean

XV. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu ziren astelehen goizean Kultur Etxean. Giro alaian burutu zen ekitaldia, Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi bertsolarien eta 10-16 urte bitarteko ikasle gaztetxoaren arteko jolasa bihurtu zen.

Guztira, 165 lan aurkeztu dira lehiaketan, eta sarituek euren bertsoak kantatu zituzten beste guztien aurrean. Oro har saioa oso atsegina, arina eta umoretsua izan zen, lehen hezkuntza eta batxilergoko ikasleak bertso zaletzeko modukoa.

Ttakunek eta Udal Euskara batzordeak antolatzen duten Lasarte-Oriako XV. Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa Añorgako Beñat Gaztelumendi eta herriko Ane Labaka bertsolari gazteen saioekin hasi eta bukatu zen. Ekitaldian, Sasoeta, Landaberi eta Institutuko ikasle mordoxka izan zen. Ondo pasa zutela nabaria zen saioaren amaieran.

Ricardo Ortega Udal Euskara Batzordeko lehendakariak, Mailu Arruti Ttakun Elkarteko ordezkariak eta Joxe Kruz Labaka Bertso Eskolako kideak eman zituzten sariak. Lehen Hezkuntzako atalean, gaiak "mesengerra" eta "bertsolaritza" ziren eta Sasoeta ikastetxeko ikasleen artean lehen saria Oskar Garrido eta Jordan Guijarrek jaso zuten eta bigarrena Alex Ibarra eta Odei Nietok. Landaberi ikastetxeko artean, lehen saria Bidane Murillok jaso zuen eta bigarren bi sari ematea erabaki zuen Bertso Eskolako epai mahaiaik, biek merezi zutelako: Ane Galardi eta Izar Agirretxek jaso zuten sari bana. Hirurek abestu zuten irabazlearen bertsoa.

Landaberi institutuko artean, "Nire bloga" eta "Zeinen argazkia daukat gordeta" gaiekin, lehen saria Maider Galardik eskuratu zuen eta bigarrena Garazi Fernandezek.

165 lan ziren, gehienak lehen hezkuntzako ikasleek



Irabazleek euren bertso sortatik bat irakurri zuten astelehen goizean kultur etxean burutu zen ekitaldian.

idatziak, batzuk taldeka edo bikoteka, beraz parte hartze handia izan da. Guztiek, asteleheneko ekitaldian zuzeneko bertsoak entzuteko aukera izan zuten. Batetik, irabazleek euren bertsoak kantatu zituzten saria jaso eta gero. Antolatzaileek, bestalde, eurentzako moduko saioa prestatu zuten, Beñat Gaztelumendi, lehen

mailako bertsolarien artean dibilen gaztea, eta, Ane Labaka, askoren ikaskide eta bertso munduan murgiltzen ari dena, gonbidatuz sari banaketara.

Muñoa gidari

Lehen txalo zaparrada eta oihuak Unai Muñoa irakasleak jaso zituen aretoan sartu zenean. Argi ikusi zen maite

duela. Muñoa berak aurkeztu zuen ekitaldia. Gaztelumendi eta Labaka, Añorga eta Lasarte-Oriako bertsolari gazteek saio borobila osatu zuten oro har.

Ikusleak ere saiko partaide izan ziren, Landaberi eta Sasoeta-Zumaburu ikastoletan 5. eta 6. mailan dihardutenak behean eta Batxilergo ikastetxeak goian: bertsolariak Erreal eta

UDALA | 3

2008ko aurrekontua onartu du Udalbatzak

GIZARTEA | 4

Haurren soin hezkuntzaren garrantzia nabarmendu dute adituek

KIROLA | 6

Endika Gartzia irabazi du Arbizuko XIII. Duatloia

Athletic-eko zalearean papearen aritu zirenean argi ikusi zen gehienak erreazale direla; bi ikastolak aipatzen bazituzten bakoitzak berearen alde egiten zuen oihu; edo mendian taldeetik urrutiratu diren neska eta mutila baldin baziren, ikusle gaztetxoengan irri eta jolasgurea eragiten zuen.

Bi jolas ere proposatu zituen Muñoak: Mihiluzen bezala, Potokumeak jokoan aritu ziren; lehen errima bertsolariek esaten zuten, eta besteak ikusleek asmatu behar zituzten. Moldatu ziren gaztetxoak errimak asmatzen.

Gero asmakizunen jokoan aritu ziren, bertsotan zerbait deskribatu behar zuten Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendik eta ikusleek asmatu. "...txintxoan tankera, erdi rubioa da nere arabera, 25 bat urte gutxi gora bera...", hasi orduko, ikastolan bezala esku gehienak altxatuta zeuden erantzuna botatzeko prest...•



ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Material elektrikoak

Argiak

Etxetresna elektrikoak

TB/Hi-Fi

Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



BELARTZA
JATETXEA
TABERNA

Asteburutako menua 11€

Eguneko menua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

Larunbata gaua
eta igandea
Itxial

Belartza poligonoa
Gurutzegei kalea 15, 4A Pabillioia
20018 Donostia • Tel.: 943 376082

Lan munduan sartzeko erraztasunak

█ Gizarteratzeko zailtasunak dituzten gazteentzako lan munduan sartzeko aukera zabalduko da lan eta heziketako proiektu honi esker

TXINTXARRI

Zortzi gaztek lan munduan sartzeko aukera haundia izango dute Lasate-Orian. Proiektuak datorren urtera arte iraungo du eta heziketa sozialeko Medio Abierto programan dauden gazteak izango dira protagonista. Helburu nagusia parte-hartzaileek enplegu sistema normalizatuaren sartzeta da.

Apirilaren 28an hasi zen gizarteratzeko arazoak dituzten gazteei zuzendutako ikastaroen bigarren fasea. Kurtsoa lanerako heziketa proiektua da eta gizarte heziketa programa baten parte diren zortzi gazteei zuzenduta dago. Helburu nagusia 17 eta 22 urte bitarteko gazte hauek lan munduan txertatzea da eta horretarako hiru dira betebeharreko xedeak. Lehenengoa gazteak motibatzea, lan mundura gogotsu sartu daitezkeen, bigarrena gazteek trebetasun, gaitasunak eta jarrera egokia hartzea eta hirugarrena lan munduaren ezaugarriak ezagutzeta bertan bakarrik moldatzen ikasteko. Helburu guztiak parte hartzaileek lan munduan murgildu eta bertan bakarrik ibiltzen ikasi dezaten finkatu dira. Lasate-Oriako gizarte zerbitzuak departamentuak aurrera daraman proiektu hau lau fazetan banatzen da, bi lan-heziketarako eta beste bi lanean hasateko. Lehenengoa fasea



1998. urteetik egin ohi dira horrelako programak herrian.

lanerako motibazioa pizteko da. Hezitzaileek orain arte egin duten lanean oinarritzen da, taldean eta bakarkako proiektuekin egin dute lan eta Lasate-Oriako Lanbideren laguntza izan dute. Fase honetan parte hartzaileen konpromesua lortu nahi da, proiektuan murgildu daitezkeen eta lana errazagoa izan dadin. Bigarrena formakuntza fasea da, Lanbideko preskripzioa egin eta gero "eraikinen pintura" kurtsoa egingo dute horrela lanerako giza baliabideak ikasteaz gain pintore laguntzaileak izateko gaitasunak bereganatuko dituzte. Kurtsoaren beste parte bat inguru-

menarekiko sentsibilitatea lantzea eta lan-arriskuen prebentzioa izango da eta hauek beste bi modulu txikitik lantuko dira. Fase hau garatzen den bitartean Lanbideko bulegotik eta kurtsoa dinamizatzaile eta hezitzaileek jarraipen pertsonalizatua egingo diete ikasleei horrela bakoitzaren nondik norakoak ondo ezagutzeko.

Hirugarren fasea sei hilabeteko lan kontratuan datza. Kurtsoa bukatuta lanean hasateko ordua da eta pintore laguntzaile moduan herriko eserleku, farolak eta abar margotuko dituzte. Laugarren fasean helburua gazteak lan

munduan sartzeta da. Hori errazteko neurri batzuk hartuko dira, sektoreko enpresetan informazio kanpaina bat egingo da udal enpleguko dinamizatzailearen eskutik. Agendak sortuko zaizkie gazteei lana bilatzeko eman beharko dituzten pausoei, kurrikuluma egitea adibidez eta azkenik, Lasate-Oriako Helduen Hezkuntza Iraunkorrarekin ikasketak osatzeko plana garatuko da.

Hirugarren fasea bukatzean sortuko zaizkien agendekin batera lan eskaintzak nola bilatu eta lanerako euren burua, enpresa egokiei, nola eskaini irakatsiko zaie.

JARDUNALDIAK

Gizarte balioak eta kirolaren inguruko hitzaldiak

Gaur hasi dira Danok-Kidek urtero antolatzen dituen "Balioetan Hezi" jardunaldiak. Aurtengoak bosgarrenak izango dira dagoeneko eta gai nagusia gizarte balioak eta kirolaren ingurukoak da. Hitzaldiak kulturetan izango dira maiatzaren 5etik 8ra, egunero 19:30ean. Lau perspektiba desberdinetatik jorrituko dute gaia, gizakiaren jarrera kirolean, gurasoen eragina kirol ohituratan, kirola eta hezkuntza eta azkenik osasuna eta kirola.

Kirolak eskaintzen dituen onurak azalduko dira aipatutako ikuspuntu desberdinetatik eta nola gizabanakoaren garapen pertsonalerako tresna izateaz gain gizartearen erakuntzan ere garrantzitsua den. Kirolak gizarte zibil bat eraikitzen laguntzen du lehia baino gehiago elkarlana bul-tzatuz.

Hizlariak adituak dira kirolean, psikologian eta medikuntzan eta ariketa fisikoaren giza baloreak mahaigaineratuko dituzte kirola era zentzudun batean biltzeko. Mikel Etxarri futbol entrenatzaileak emango du gaur lehenengo hitzaldia, kirola ez dela arrakasta pertsonala lortzeko medio bat baizik eta aberastasun kolektiboan lagundu beharko lukeen elementua garapen pertsonalerako eta aldi berean disfrutatuko ondo pasatzeko. Bihar, maiatzaren 6an, Jose Antonio Arruzza eta Montes Etxaide izango dira hizlariak, biak psikologian doktoreak dira eta seme-alaben garapena harmoniaz izateko gurasoek duten garrantzia azalduko dute. Asteazkenean, hilaren 6an Amaia Ramirezek kirolean aritzeak hauren psikologian eta gizarteratzean duen eragina azalduko du. Azkenik, ostegunean, Jose Manuel Gonzalez izango da solaskidea eta motrizitateak garapen sozioafektiboan eta fisikoan duen garrantzia azalduko du.

Usurbilgo Lanbide Eskola, Suedian eta Panaman

Usurbilgo Lanbide Eskolako Juan Antonio Eizagirre irakasleak, KORTA fundazioaren laguntzari esker, Suediako zenbait enpresa eta Lanbide Eskola bisitatzeko aukera izan du. Irakasle hau, bibrazioen bidezko mantentzearen inguruko proiektua garatzen ari da. Suediako hainbat eskola Varberg enpresarako haize errota bat monitorizatzeko sistema garatzen ari direnez, benetan aberasgarria suertatu zaion proiektua aztertzeak aukera izan du. Eizagirrerri guztiz adierazgarria iruditu zaio enpresek eskolengan duten

konfidantza ekoizpen proiektu bereziak garatzeko orduan.

Bestetik, Usurbilgo Lanbide Eskolako Xabier Esteban, Arrasateko ALECOPI eta LKS Ingenieritzarekin batera Panaman izan da Panamako Jakinduriaren Hirian kokatutako den Energia Berriztagarrien punta-puntako gunearen eraikuntzaren azken zertzeladak finkatzen. Hango ordezkariekin hainbat bilera izan dituzte gune honen behin betiko kokapen egokia erabakitzeko. Proiektu honek oihartzun handia izan du ber-
tako gizartearen. •



III. Musika Topaketak

Datorren ostiralean Rosa-Ruti hirukoteak flauta, bibolin eta fagot emanaldia eskainiko du Brigidatarren komentuan. Arratsaldeko 19:30ean izango da esperientzia eskolaren hirugarren topaketak direla eta. XVIII. Mendeko Europa erdialdeko musikagile nabarmenenen maisulanak eta Francoise Deviene frantziarraren obrak entzun ahal izango dira bertan.

2008 urteko aurrekontua onartu du Udalak

■ Aurrekontuaren aurka EAJ-PNV, PP eta EAE-ANV taldeek osoko emendakinak aurkeztu zituzten

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udaleko aurrengo aurrekontuak aurkeztu eta bozkatu zituzten osoko bilkuran asteazken goizean, apirilaren 30ean. Bertan, 2008. urteko 41.295.000 eurotako aurrekontua onartu zuten, PSE-EE eta EB alderdien botoei esker. EAE-ANV, EAJ-PNV eta PP alderdiek gobernu taldeak proposatutako dokumentuaren aurka aurkeztutako osoko emendakinak eta osoko bilkuran aurkeztutako 56 emendakin partzialak errefusatu egin zituzten.

Udal gobernu taldeak aurkeztutako 2008. urteko aurrekontuak aurkeztu zituen asteazkenean osoko bilkuran. 41.295.000 euro jasotzen dira aurrekontu honetan. Iazkoa baino %43,13 handiagoa. Udalak inoiz kudeatu duen kopururik handiena. Ia lau orduz osoko emendakinak eta emendakin partzialak aurkeztu, defendatu, eztabaidatu eta bozkatu ondoren, 2008. urteko aurrekontua aurrera doa. Bozkaren emaitzak: alde, PSE-EE (8) eta EB (1); kontra, EAE-ANV (3), PP (1) eta EAJ-PNV (1), Estitxu Alkorta bozka egin aurretik alde egin zuelako eta Herritarren Plataformako



2008. urteko 41.295.000 eurotako aurrekontua, Udalak kudeatu duen aurrekontu handiena, asteazkenean osoko bilkuran onartu zen.

zinegotzia abstenitu egin zen. EAKo zinegotziak ez zuen bozkatu bilkuratik alde egin zuelako.

Osoko emendakinak

EAE, EAJ eta PPK gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuari ez zioten babesik eman. Oposizioak gobernu taldeari aurtengo aurrekontuak oso berandu iritsi direla eta oposizioaren iritzia jaso gabe eta laguntzarik gabe egin direla

aurpegiatu zion.

EAEko ordezkariak "aurrekontu neoliberalak" direla leporatu zien eta "etxebizitzaren arazoari irtenbidea eman-go ez diona. Euskara normalizatzeko borondate gutxi" dagoela gaineratu zuten. PPK PSE-EEri leporatu zion "aurrekontuek ez dutela terrorismoa deslegitimatzeko norabidea jarraitzen eta ez dute herritarren lehentasunei erantzuten". EAJk bi kritika

nagusi egin zituen: batetik, administrazioan euskararen alde gauza asko egiteko dagoela eta bestetik, salmenta libreko etxebizitzari lehentasuna eman zaiela, "dagoeneko 238 etxebizitza libre eraiki dituzte eta babes ofizialeko etxebizitzarik ez".

Emendakin partzialak

Komisio desberdinetan aurkeztu zituzten emendakinak atzera bota zituztenez, asteazkenean

osoko bilkuran aurkeztu zituzten eztabaidatzeko. Guztira 56 emendakin partzial: EAJ-PNV (22), PP (16), LOPH (11) eta EAE-ANV (7). Ez zen bakar bat ere onartu. Ana Prieto Plataformako ordezkariaren hitzetan: "guk aurkeztutako emendakin ez da onartu. Jakin dezazuen emendakin hauetan auzoz-auzo herritarren proposamenak eta kezkek jaso ditugula. Herria egiteko, denak hartu behar dira kontutan". •

Elkartasuna

Udaran haur saharuiarrak etxean hartzeko kanpaina

Saharako basamortuan bizi diren haurrak udaran Euskal Herrira etortzen dira oporrak igarotzera eta Sahara Herriaren Lagunen Elkarteak deia luzatu die lasarteoriarrei uztaila eta abuztuan Saharako haur bat hartu dezaten. Elkarte honek Udalaren laguntzaz "Oporrak bakean" programa martxan du eta Lasarte-Oriaren erroldatutako 10 harrera familia behar ditu haur saharuiarrek uztaila eta abuztua hemen igaro ditzaten. Elkarteakideak pozik daude aurreko urteetan baino haur gehiago etor daitezkeelako aurten Lasarte-Oriara. Beraz, interesa duenak edo informazio gehiago beharrez gero, ondorengo telefono zenbakira



deitu: 650627485 (Mikel) edo 660775090 (Txema).

Bestalde, Oporrak bakean egitarauaren barruan, datoren larunbatean hilak 10 egun osoan informazio mahai

jarriko du Sahar Herriaren Lagunak elkarteak Okendo Plazan. Elkartasun Merkaturako jarriko da egun horretan eta sahararren lagunek egitarauaren berri emango dute eta

materiala saldu.

Maiatzaren 13an asteartea, arratsaldeko 7:30 ean Manuel Lekuona Kultur Etxean Bideo emanaldi eta hitzaldi bat burutuko da Oporrak Bakean kan-

painaren nondik norakoak azaldu eta zalantzak argitzeko.

Maiatza osoan, bestalde, Sahar Kanpamentuetako argazkiak ikusgai daude Jalgi Kafe Antzokian. •

Endika Gartzia Arbizuko XIII. duatloiko podiumean Radka Vodickovarekin batera

TXINTXARRI

Endika Garcia lasarteoriatarrak irabazi zuen Arbizuko XIII. duatloia, aurreko larunbatean, apirilaren 26ean. Froga hau Euskal Herriko duatloi zirkuiturako zazpigarren proba puntugarria zen, bakarra Nafarroan, eta distantzia motzekoa (8km-36km-4km).

Arbitzuko irteera gunean 200 partehartzailerik inguru bildu zen eta irabazleak Endika Gartzia (Saiatuz Kirol Taldea) lasarteoriatarra 1:36:58 eta Radka Vodickova (Ekirol Triatlón Team) txekiarra 1:47:54ko denborarekin irabazi zuten.

Aipatzekoa da, duatletek sofitu behar izan zuten bero izugarria. Horregaitik, bi kategorietan, partehartzailerik asko lasterketa bertan behera utzi behar izan zuten.

Garaipen borrokatua

Egon Alegria probako ordezkariek azaldu digunez, gizonetakoetan, lehen atalean lasterketa burua oso borrokatua egon zen. "Lehen transizioan zazpi bat duatletez

osaturako talde bat iritsi zen. Bizikleta saioa, pasa den urtean bezala, erabakiorra izan zen. Aurten, egin duen bero ikaragarriarengatik, buru zihon taldean uneoro erasoak egon ziren.

Bertan lasarteoriatarra gailendu zen, lasterketa buruko tropela moztu baitzuen eta taldekideei metro batzuetako aurrea hartu zien, bizikletako partzialik onena eskuratu zuen. Endikak bigarren atalean ateratako diferentzia nahikoa izan zuen lasterketa bereganatzeko.

Endika Gartziak Radka Vodickova emakume txekiarrarekin Arbizuko podiumean egoteko aukera izan zuen. Emakume honek garaipen zerrenda zabala du. Izan ere, Europako txapelkun ordea eta 2007. urteko Txekiar Errepublikako txapelkuna izan zen.

Hurrengo helburuak

Lasarte-Oriako duatletek Euskal Herriko probatan parte hartzen jarraituko du. Ea hartu duen sasoi onari eusteko gai den eta azkenaldian lortutako emaitzak errepikatzen dituen. •



Lasarte-Oria Kirol Elkarte judoka gazteak Anoetan (Donostian) ospatu zen Gipuzkoako Txapelketan egindako argazkian.

LOKEko judokak Euskadiko txapelketan

Lasarte-Oria Kirol Elkarte judoka infantilak Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuten apirilaren 26ean, Donostiako Anoetan. Kirolari lasarteoriatarrek 3. postua eta brontzezko domina lortu zuten bertan. Bertan borrokatu zuten judokak ondorengoak izan ziren: Esteban Martinez, Josu Olmos, Iñigo Matxain, Abayuba Gutierrez, Mario Garrido eta Imanol Gonzalez. Gorka Aristegi gazte hauen entrenatzailea pozik dago judoka talde honek egiten ari den denboraldiarekin: "guztiak zoriondu behar ditut, oso lan ona eta polita egiten ari baitira aurten".

Euskadiko txapelketa

Kiara Tobajas, Esteban Martinez eta Mario Garrido Gastien ospatuko den infantil mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, maiatzaren 10ean. Txapelketako irabazleak Espainiako txapelketara joateko aukera izango dute. •

Egunero

Erakusketa

SAHARAR KANPAMENDUETAKO ARGAZKIAK ikusgai Sahararen lagunak elkartean eskutik. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan

Astelehena, 5

Hitzaldia

GIZAKIEN PORTAERA KIROLEAN: FUTBOLEAN izeneko hitzaldia Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi V. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00ean.



Asteartea, 6

Hitzaldia

GURASOEN ERAGINA KIROL JARDUNEKO OHITURETAN hitzaldia Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi V. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Death Proof pelikula ikusgai

DEATH PROOF pelikula izango da ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Quentin Tarantinoren pelikula baten aurrean aurkitzen gara eta bertan Kurt Russel da protagonista. Pelikula honetan genero ezberdinak nahasten dira: beldurra, akzioa, "road movie" izenekoak.

KULTURETXEAN OSTEGUNEAN 22:00ETAN
SARRERA: 4 EURO
GAZTELANIAZ

Asteazkena, 7

Hitzaldia

KIROLA ETA HEZIKETA izeneko hitzaldia Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi V. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Osteguna, 8

Hitzaldia

KIROLA ETA OSASUNA izeneko hitzaldia Danok Kideren Balioetan Hezi V. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Ostirala, 9

Musika

Rosat eta Ruti en Trio, Danok Kidek antolatutako III. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.




Ostirala, 9

Kontzertua

Joseba Irazokiren emanaldia, folk eta pop estiloak. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

EUSKARAZ.



Ostirala, 16

Kontzertua

Jam Sesioa, Julen Cobosen emanaldia, runba eta pop estiloak... Jalgi kafe antzokian 22:30ean.

Ostirala 23

Antzerkia

"OGIYIK KARRI ETZUN SEMIA" antzezlan Txirene antzerki taldearen eskutik Jalgi kafe antzokian 22:30ean. Kultur Errotaren zirkuituaren barruan. EUSKARAZ.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakotan, ostiralera arte!

Oharrak

Biyak Bat elkartean bidaia

Biyak Bat elkarteak bazkide guztientzako antolatu dute Benidormera bidaia. Irteera maiatzaren 19an izango da eta itzulera ekainaren 2an. Benidormeko Poseidon Playa izeneko hotelean hartuko dute ostatu. Norbaitek interesarik badu edo informazio gehiago nahiko balu, Biyak Bat elkarteak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa behar du.

Zabaletako jaiak maiatzaren 27tik aurrera

Auzoko jaiak antolatzeko bilera egingo da ostiralero Antoni plazan iluntzeko 19:30ean. Aurten aldaketa txiki bat dago eta jaiak maiatzaren 27tik ekainaren 1a arte izango dira.

Olio bilketa merkatuan

Asteazkenean ospatzen den merkatuan erabilitako olioak jasotzen dute, hileko lehenengo, bigarrenengo, hiruga-

rrenngo eta azkeneko astean. Honetaz gain birziklatzeko ere bestelako gauzak jasotzen dituzte: mugikorak, Cdak...

Gazte Kanpaldiak gaztetxoentzat

Ttakun Kutur Elkartearen Gaztetxoentzako ere irteerak antolatu dira, eta izen ematek o epea irekita dago ekainaren 6 arte. Kanpaldi hauek LHko 3., 4., 5. eta 6.maila ko gazteei; DBH1, 2 eta 3. mailako gazteei eta DBH4ko eta Batxilergoko gazteei zuzenduak daude. Izen ematea Ttakuneko bulegoetan egin ahal izango da.

Udalak antolatzen dituen udalekuak

Udaleko Zerbitzu Sozialen departamentuak urtero antolatzen dituen udalekuetan izena emateko epea gaur hasi da eta maiatzaren 30a bitartean luzatuko da. Udaleku hauek 10-14 urte bitarteko gazteentzako dira. Izen ematea Udaleko registro orokorrean.

Udako Txokoak

Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Udako txokotarako epea gaurtik maiatzaren 28ra bitartean zabalik dago. Izen ematea Amaraun ludotekan edo Ttakuneko bulegoan egin daiteke. Ordainketa kutxan edo Ttakuneko bulegoan txartelaren bidez egin ahal izango da.

Musika Eskolako Aurrematrikula

Udaleko Musika Eskolan 2008-2009 kurtsorako aurrematrikula epea gaur hasten da eta maiatzaren 23arte luzatuko da. Aurrematrikula egiteko 09:00etatik 13:00etara Manuel Lekuona Kultur Etxean.Ondoren matrikula garaia etorriko da ekainaren 23tik uztailearen 11arte.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari

Anbulategiko arreta telefonikoa

Azken aste hauetan ambulategira deitu behar izan dut zita batzuk eskatu eta kontsulta batzuk egiteko. Pazientzia-dun pertsonatzat daukat nire burua baina, batzutan Job Santuaren pazientzia izan arren hau ere bukatu egiten da. Eta hori da niri lehengo astean gertatu zitzaidana, telefonoz deitu, deitu eta deitu arren ez zidan inork telefonorik hartzen. Goizean aurreneko orduan aritu nintzen eta ezer ez, goiz erdi aldean berriro egin nuen saiakera eta eguerdi aldera azkeneko. Goiz horretan telefonoz ezin izan nuen harremantant jarri ambulategiarekin, beraz eta gertu gelditzen zaidanez handik pasatzea erabaki nuen.

Nik ez dakit zein den arazoa, jende gutxi egotearena edo daudenak telefonoz ezin harturik ibiltzearena; kontutan hartuz hemendik gutxira kiroldegiaren aldamenean ambulategi berria ireki behar dutela, dagokionari horrelako puntuk kontutan edukitzea eskatuko nioke.



A.G



Trikitalari talde ederra Amalur eskolakoena. Ederki girotu zuten erromeria.



Jende ugari bildu zen ermitaren inguruan. Festaz ederki gozatu zuten.

Santa Krutz biharamunean, erromeria Azkorte ermitan

Urteroko legez, herritar asko hurbildu zen atzo Urnietako Azkorte ermitako erromerira

TXINTXARRI

Urnietako udalak antolatzen du festa Azkorten Santa Krutz egunarekin. Lasarte-Oriari berriz, Santa Krutz eguna pasata hurrengo igandean dagokio antolatzea.

Beraz, hitzorduari kale egin gabe, aurten ere Ttakan Kultur Elkarteak antolatu zuen atzoko festa.

Egitaraua goizeko 11:00etan hasi zen, ermitan ospatzen den mezarekin. Bertan, Alboka abesbatzako kideek abestu eta Jon Lasak zuzentzen duen Amalur eskolako gazteek trikitia jo zuten.

Horren ondoren, festa ermitako kanpoaldean jarraitu

zuen. Amalur eskolako gazteek jarraitu zuten giroa berotzen euren trikitixa, pandero eta bateriarekin, eguzkiarekin batera; izan ere egun ederra izan zen atzokoa. Giro eguzkitsua eta beroa goiz-goizetik. Goiz erdian haize zakar xamarra altxa bazen ere, eutsi zion giro onak.

*Giro ederra egin
zuen eta jende
asko animatu zen
oinez igotzera
ermitara*

Herri kirolak hasi baino lehen Patxi Etxeberria eta Andoni Otamendi bertsolariek saiotxo bat egin zuten, bertaratutakoei agurra egin.

Herri kirolen txandan berriz, Urtzi Telleria herritarra aritu zen harria jasotzen Aimar Irigoienekin batera. Aizkoran berriz, Ugaitz Mugertza eta Barberena aritu ziren. Enbor bat mozteko Barberenak 43 kolpe behar izan zituen, Mugertzak berriz, 47. Urtzik 15 jasoaldi eman zizkion 125 k. kopari 2 minututan, Aimarrek berriz 19 125 k. errektangularrari. Bikoteka berriz, Urtzik eta Ugaitzek irabazi zuten. Laurek ere lan ederra egin zuten. •



Bertsolariek eta kirolariek saio ederra egin zuten.

ANAIAK
JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA

